



Euskal hedabideen audientzia digitala: metrika adostuen garaia



Ira. 12 - Ira. 13 2022

Kod. I10-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 12 - Ira. 13 2022

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA





Azalpena

Audientzia digitala aipatu eta klikak datoz akordura: zenbat klik? Nork egiten du klik? Nor dago klik horien atzean? Eta klik guztiak jasotzen ote dira? Gainera, azken hilabeteetan neurgailu berriak merkaturatu dira (Google Analytics 4, esaterako) eta neurtzeko arau berriak ei datoz (*cookie* bidezko jarraipenean gertatzen ari diren aldaketek joko-arauak berridatziko baitituzte). Aldaketa horietarako euskal komunikabideak prestatzeko lehen urratsak egin dira Euroeskualdearen BEHA proiektuari esker 2021-2022 ikasturtean zehar, euskarazko hedabideen audientzia digitala neurtzeko sistema ebaluatzeko eta eguneratzeko lanak, eta bidean lortutako emaitzak aurkeztuko eta kontrastatuko dira ikastaro honen baitan. Euskal Hedabideen Behategiak izaera, mota eta hedapen geografiko ezberdineko zortzi komunikazio proiektuekin egin du lan lehen fasean (*Berria, Hamaika TB, Kanaldude, Euskalerrria irratia, Elhuyar, Gaztezulo, Anboto* eta *Alea*) eta bigarren fase batean gainontzeko euskarazko hedabideengana zabalduko da egitasmoa. Bigarren fase horretara pasatzeko baina, ezinbestekoa da lehen fasearen emaitzak aurkeztea eta kontrastatzea.

Bestalde, audientzia digitalen esparruan esanguratsuak diren gaiak ere ekarriko dira gurera: Google Analytics eta Googletik haragoko analitikak, edo euskal gazteen kontsumo digitala kasu. Halaber, hedabideak —osoki digitalak izanda ere— ekosistema mediatiko zabalago baten parte dira, horregatik euskal hedabideen audientziak modu globalean neurtzeko proposamen bat ere jarriko da mahai gainean.

Uda Ikastaro honen bidez, euskal audientzia digitalen eremutik abiatuta, metrika adostuen garaira urratsak ematen hasteko lehen gogoeta zabala egingo da unibertsitateak, sektorea eta administrazioak elkartuta.

Helburuak

Euroeskualdearekin batera Euskal Hedabideen Behategiak burututako BEHA proiektuaren emaitzak jendaurrean aurkeztu eta kontrastatu.

Euskal hedabideen audientzia digitala ezagutzeko bideak, tresnak, aukerak eta erronkak ezagutu.

Metrika adostuen bidean hiru eragile nagusi elkartu eta elkarrekin gogoeta partekatua egin: komunikabideak, administrazioa eta unibertsitatea.

Eragileen arteko lankidetzarako giroa indartzen jarraitu etorkizuneko proiektuei begira.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak





Programa

2022-09-12

09:00 - 09:15	Izen-ematea eta harrera
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Libe Mimenza Castillo Behategia / EHUko NOR Ikerketa Taldea - Koordinatzailea / Ikertzailea Igor Astibia Teiletxea Hekimen - Zuzendaria Leyre Azcona Euroeskualdea Josu Amezaga Albizu NOR ikerketa taldea, UPV/EHU - Ikertzailea eta irakaslea
09:30 - 10:30	“Neurketa digitala Espainiako estatuan” Rosario Borrego Rastrero GFK - Digital Analytics Manager
11:00 - 12:00	“Google Analytics hedabideen sektorean” Mikel Elordi Lin3s - Analista digitala
12:00 - 13:00	“Analitika digitalak Googletik harago” Jordi Morales UOC - Sare sozialen ikertzailea
13:00 - 14:00	“EITBren analitika digitalak: antolaketa eta erronkak” Lontzo Sainz Nieto EITB - Estrategia eta ikerketa zuzendaria
15:30 - 16:00	“Euskal Herriko gazteek komunikatzeko, entretenitzeko eta informatzeko dituzten ohiturak” Beatriz Narbaiza Amillategi Applika+, UPV/EHU - Ikertzailea eta irakaslea
16:00 - 17:30	“Hitzaldi laburrak eta eztabaidarako plaza” Moderatzailea Leire Palacios Egiguren Komunikatzailea Cookie-rik gabe zer? Lorea Arakistain Aizpiri PuntuEUS - Komunikazio arduraduna Google ez, burujabetza bai Asier Iturralde Sarasola Argia - Kazetaria BERRIaren metrikak, analitika kualitatiboak Pello Urzelai Agirre BERRIA - IKT arduraduna Humanitate Digitalak eta hedabideak, begirada osagarriak



Xabier Landabidea Urresti | Deustuko Unibertsitatea - Ikertzailea eta irakaslea

2022-09-13

09:00 - 10:00

“Bien arteko solasaldia: "Euskal hedabideen audientziak: nola neurtu Internet, papera, irratia eta telebista batera?"“

Josu Amezaga Albizu | NOR ikerketa taldea, UPV/EHU - Ikertzailea eta irakaslea
Edorta Arana Arrieta | NOR ikerketa taldea, UPV/EHU - Ikertzailea eta irakaslea

10:00 - 11:00

“BEHA proiektuaren emaitzen aurkezpena“

BEHA, euskarazko komunikazio espazioaren neurketa digitala eguneratzeko ariketa

Libe Mimenza Castillo | Behategia / EHuko NOR Ikerketa Taldea - Koordinatzailea / Ikertzailea

11:30 - 12:45

Mahai ingurua: “BEHA proiektuan parte hartu duten zenbait hedabiderekin mahai-ingurua“

Moderatzailea

Libe Mimenza Castillo | Behategia / EHuko NOR Ikerketa Taldea - Koordinatzailea / Ikertzailea
Aritz Martinez de Luna Urzelai | ALEA
Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute | ELHUYAR
Maddi Mochales Zumelaga | HAMAICA
Eki Pagoaga | Kanaldude

12:45 - 13:45

“Administrazioa metrikeri so“

Euskararen Adierazle Sistema eta ikerketa lerroak

Jon Aizpurua Espin | Eusko jaurlaritza - EAS - Zerbitzuko arduraduna

Hedabideekiko politikak eta lanketa euskararen sustapenerako

Estibaliz Alkorta Barragan | Eusko jaurlaritza- HPS - Euskara sustatzeko zuzendaria

13:45 - 14:00

Itxiera

Zuzendariak



Libe Mimenza Castillo

UPV/EHU

Libe Mimenza Castillo (Elorrio, 1988) kazetari, komunikazioaren ikertzaile eta hedabideetako iritzi-emaile euskalduna da. Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi zuen kazetaritza, eta ondoren Multimedia Komunikazioko eta Gizarte Komunikazioko masterrak egindakoa da. Komunikazio digitalean eta transmedia alorrean egin du lan eta ikerketa, NOR ikerketa taldean, besteak beste. 2016tik hona, Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzailea da.



Igor Astibia Teiletxea

Hekimen

Igor Astibia Teiletxea HEKIMEN elkarteko zuzendaria da. HEKIMEN elkarteak herri ekimenetik sortutako euskal hedabideak biltzen ditu bere baitan eta sektorea indartzeko eta hobetzeko dihardu lanean.

Irakasleak



Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute

Elhuyar

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute (Gasteiz, 1974) Elhuyar Fundazioan egiten du lan, zientzia-kazetaritzaren alorrean. Une honetan, Elhuyar aldizkariko zuzendaria eta erredaktorea da, eta, aurretik, Teknopolis telebista-saioko aurkezle eta erredaktore aritu zen. Biokimikan doktorea da. Biofisika Unitatean (CSIC-EHU) egin zuen bere doktoretza, polio, GIB eta gripearen birusek zelulak infektatzeko garatu dituzten mekanismoak ikertzen.



Jon Aizpurua Espin

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Jon Aizpurua Espin (Durango, 1963) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako zerbitzuburu. Euskaltzain urgazle izendatua 2018an. Euskal Filologian lizentziaduna da.



Estibaliz Alkorta Barragan

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika saileko Euskara Sustatzeko zuzendaria da. Aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaria eta Euskararen Aholku batzordeko kidea izandakoa.



Formakuntzaz ingeniari industriala materialetako arloan eta masterra enpresara aplikatutako kalitate kudeaketan.



Josu Amezaga Albizu

UPV/EHU

Josu Amezaga Albizu (Caracas, 1960) Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, 1987tik eta NOR Ikerketa Taldeko burua. Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saileko zuzendaria izan zen. Soziologian lizentziatua eta Soziologia Politikoan doktorea, Paulo Iztuetak zuzendutako euskal kulturari buruzko tesiari esker. Ibilbide akademikoan hizkuntza, kultura, komunikazioa eta nortasunaren bueltan ibili da, euskarari bezainbeste Europako eta munduko beste hizkuntza gutxitu askori ere erreparatuz: hala lurralde bati lotutako hizkuntzei nola migrazioaren hizkuntzei ere. EiTBko eta Berriako Administrazio batzordekide izan da.



Lorea Arakistain Aizpiri

PuntuEUS Fundazioa, Arduraduna

Lorea Arakistain Aizpiri (Eibar, 1983). PuntuEUS Fundazioko marketin arduraduna da 2014tik. Komunikazio arloko profesionala, kazetari bezala hasi zuen ibilbide profesionala (Herri Irratia, Euskadi Irratia...) eta zientziare eta teknologiaren gizarteartzean aritu zen Elhuyarren. Ingurune digitalak sortzen zituen aukerak erakarrira komunikazio estrategikoaren eta marketin digitalaren arloan egin ditu azken 10 urteak. Euskarazko marketin digitalaren erronkari aurre egiteko bideak bilatzen ere aritzen da.



Edorta Arana Arrieta

UPV/EHU

UPV / EHUko irakaslea eta ikertzailea da 1988az geroztik. Aurretik, kazetari gisa lanean aritu zen ETBn, harrezkero hainbat ikus-entzunezko zein idatzizko komunikabideekin kolaboratzen du. Kazetaritzan lizentziatu zen 1982an, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 1995ean unibertsitate berean doktoratu zen. Irrati, telebistarako eta Interneteko programazioarekin lotutako gaiak irakasten ditu eta hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu gai horien inguruan. NOR ikerketa taldeko kidea da eta MINECO eta UPV/EHUK diruz lagundutako ikerketa proiektuetan lan egiten du.



Leyre Azcona

Doble Licenciada en Derecho y Administración y Dirección de Empresa por la Universidad Pública de Navarra, y Máster en Asuntos Europeos en Sciences Po Paris. Tras una experiencia en el Parlamento Europeo, he trabajado como consultora de proyectos europeos en Euronet Consulting, centrándome en proyectos de ayuda al desarrollo en el ámbito de las infraestructuras y en CARSA, especializándome en la gestión de proyectos de innovación y transformación digital e industrial. Desde 2018 trabajo en la AECT Eurorregión Nueva-Aquitania Euskadi Navarra como técnica del área de empleo, innovación y formación.



Rosario Borrego Rastrero

20 urte baino gehiagoko esperientzia du merkatu-ikerkuntzan, eta hainbat motatako konpainietan egin du lan (institutu, komunikabide-agentzia edota aholkularitzak). Bezero-beharren eta metodologiaren



egokitasunaren ikuspegi orokorra lortu du. Azken 10 urteetan neurketa digitala, data Analytics eta metodo tradizionalen integrazioa izan ditu ardatz. Hainbat foro eta mintegitan txostengilea izan da, eta industria digitaleko eta ikerkuntzako elkarte sektorial garrantzitsuenekin parte-hartze handia izan du. Masterreko eta irakaskuntzako ohiko laguntzailea. Merkatu Ikerketa eta Tekniketan lizentziaduna (UA). Estatistika diplomaduna, Sevillako Unibertsitatean.



Mikel Elordi

LIN3S enpresan analista digitala automozio, hedabide eta "Real state" sektoreetan. Deustoko "Big Data & Business Intelligence" programan parte hartua eta marketing inguruko harraminten ezaguna.



Asier Iturralde Sarasola

Kimika Zientzietan lizentziatua eta Software Librean Unibertsitate Espezialista EHUUn. 2012tik, Iametzako garapen-taldeko kide eta 2014tik ARGIA.eus-eko web garatzaile.



Xabier Landabidea Urresti

Xabier Landabidea Urresti (Bilbo, 1981) Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko ikerlari elkartua eta irakaslea da. Ikus-entzunezko Komunikazioan Lizentziatua eta Politika eta Administrazio Zientzietan Lizentziatua da. Enpresa, Erakunde eta Ikus-entzunezko Komunikazioan EiTb-Deusto Masterra eta Aisia eta Giza Potentzialean Doktorea da. Udako Euskal Unibertsitateko kide ere bada.



Aritz Martinez de Luna Urzelai

Aritz Martinez de Luna Urzelai (Gasteiz, 1981) ALEA hedabideko zuzendaria da. TOKIKOMeko administrazio kontseiluko kidea ere bada, eta baita Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaritza batzordeko kidea ere. Alearen ordezkari lanetan, Arabako Foru Aldundiko Euskara Batzordeko kidea da eta baita Gasteizko Udaleko Euskara Elkarguneko partaidea ere.



Maddi Mochales Zumelaga

Hamaika Telebista, Ekoizpen eta teknika arduraduna

Hamaika Telebistako ekoizpen eta baliabide teknikoen arduraduna da. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua da, Euskal Herriko unibertsitatean.



Jordi Morales

Jordi Morales-i-Gras Soziologiako doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Zientzia Sozial Konputazionala da haren espezializazio-eremua, eta arreta handia jartzen du Sare Sozialen Analisisian eta Adimen Artifizialean. Bilbao Business School-eko Ganberako Informazio Sistema Aurreratuen arduraduna da, eta irakasle gisa aritzen da UPV/EHUko Ikerketa Sozialeko Eredu eta Arloen Masterrean, UOCeko Social Media masterrean eta Ciènciako Professionals de la Ciènciako Col·legi-ko Datuen Analitikako Graduondokoa. Halaber, Network Oversight-en sortzailea eta CEO da, Big Dataren azterketa soziologikoan espezializatutako aholkularitza-enpresa.



Beatriz Narbaiza Amillategi

UPV/EHU

Beatriz Narbaiza Amillategi (Ermua, 1968) Kazetaritzan lizentziatua eta Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea. UPV-EHUko ikertzailea eta irakaslea gradu eta masterrean. Hainbat liburu-kapitulu eta artikulu argitaratu ditu.



Eki Pagoaga



Leire Palacios Egiguren

PuntuEus Fundazioa

Leire Palacios Eguiguren (Bilbo, 1986) Ikus-Entzunezko Komunikazioan eta Giza Zientzietan Lizentziaduna da. Master ikasketak egin ditu Enpresa Nazioartekotze arloan, Irakaskuntzan eta Humanitate Digitalan Kultur arloko hainbat proiektutan militatzen du. Humanitate Digitalak eta berrikuntza uztartuz egiten du lana, hizkuntza, kultura eta esperimentazioa ardatz ingurune digitaleko proiektuen sorkuntza eta kudeaketan. Enpresa alorrarekin paraleloan egiten du komunikazio ibilbidea. Lan egin du hedabide digitalean, paperezko prentsa idatzian, irrastian, eta telebistan.



Pello Urzelai Agirre

EUSKAL EDITOREA S.L.

Pello Urzelai Agirre (Bilbo, 1961) Kazetaria eta Berriako IKTen arduraduna da. Berriako Politika Saileko arduraduna izan da eta aurretik Euskaldunon Egunkarian, Hemen astekarian egin zuen lan, eta Argia aldizkariko kolaboratzailea izan zen. Bi kazetaritza libururen egilea da: Amesgaiztoa. Egunkaria Auziko epaiketaren kronika (Berria, 2010) eta Su etenaren apustua (Berria, 1999).



Lontzo Sainz Nieto

EiTB

Lontzo Sainz EITBko Estrategia eta Ikerketa zuzendaria da. Kazetaritza ikasi zuen EHUn, EFE agentzian eta DEIA egunkarian kolaborazioak egiten zituen bitartean. Bekadun moduan sartu zen EITBn eta gerora albistegietako kazetari, arloburu, bateragile eta editore izan zen. 1999. urtean EITB Taldeko prentsa buru izatera pasatu zen eta 2004an eitb24.com albisteetako atariaren burua. Gerora Sare Sozialetako lehen antolaketa eta egitura analitikoa gidatzea tokatu zitzaion, eta 2018ra arte, albisteetako eta parte-hartzerako burua. Urte hartan Transformazio Digitalerako zuzendaritza berrian hasi zen eta iaztik dabil Estrategia eta Ikerketa zuzendari.



Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-09-12 ARTE
Orokorra	80,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	68,00 EUR
Matrikula exentzia	56,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	68,00 EUR
Donostia Kultura	68,00 EUR
Elkar	68,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	68,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2022-09-12 ARTE
Orokorra	80,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	68,00 EUR
Matrikula exentzia	56,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	68,00 EUR
Donostia Kultura	68,00 EUR
Elkar	68,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	68,00 EUR



Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa